

Nafarroako Parlamentuan aldi baterako enplegua egonkortzeko Erabakia, enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen esparruan.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Zerbitzu Orokorretako buruaren proposamena eta horri buruz legelari nagusiak eginiko txostena, eta horiek Langile Batzordeari helarazita –jasotzat eman ditu 2022ko maiatzaren 27ko erabakiaren bidez–, ERABAKI DA:

1. Identifikatzea abenduaren 28ko 20/2021 Legean jasotako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen menpe dauden Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organiko lanpostuak, erabaki honekin batera doan eranskinarekin bat.

2. Legelari nagusiari eta Zerbitzu Orokorretako buruari agintzea bidezkoak diren neurriak har ditzaten ezarritako epeetan egiteko 20/2021 Legean jasotako salbuespenezko kasuetan dauden lanpostu hutsen deialdiak.

3. Agintzea erabaki hau eta haren eranskina Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANSKINA

1. Hautaketa-sistematzat oposizio-lehiaketa daukaten lanpostuak (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikulua).

ZERBITZU JURIDIKOAK

Legelaria (A maila) Kopurua: 2

2. Hautaketa-sistematzat merezimendu-lehiaketa daukaten lanpostuak (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak).

IDAZKARITZA NAGUSIA

Prentsa Atala Atalburutza

Komunikazioko teknikaria (A maila) Kopurua: 1

ZERBITZU OROKORRAK

Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria (B maila) Kopurua: 1

Mantentze-lanetako teknikari-ofiziala (C maila) Kopurua: 1

Gelazaina (D maila) Kopurua: 1

NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA

Administraria (C maila) Kopurua: 1